

Hitz- andana

HITZAREN INGURUKO JAIALDIA

Hitzaren inguruko jaialdia.
Istorio ezberdinak, kontatuak,
kantatuak, antzeztuak,
errezitatuak edota
musikaz lagunduak.

Irailak 30, Urriak 1 eta 2
2020



Esnatu naiz

Kabareta

30
IRAILA

Egilea eta aktorea: **Andoni Mutiloa**

Konpainia: **Elur Etxea** Kanpo-begirada: **Amancay Gaztañaga**

Elurrek Londresko The Pink Flamingo klubean egiten du lan. Dantzatzeaz eta kantatzeaz gain, bere showa izatea lortu du eta gauero jende asko joaten da bera ikustera. Harrigarria izan da Elurren eraldaketa. Izan ere, duela 10 urtera arte baserrian bizi zen bere familiarekin. Nola demontre lortu du baserritar euskaldun honek underground mugimenduko modako artista izatea Londresen? Zergatik da Beyonce honen guztiaren erruduna?

Antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen showa da *Esnatu naiz*. Identitatea, giza harremanak eta sexualitatea ditu hizpide, besteak beste.

Antzerki Sorkuntza
Lehiaketaren aurtengo
edizioko komedia finalista.

20:00

ADINA: +16

BITERI KULTUR ETXEA

Aretoaren edukiera mugatua. Gonbidapenak Biteri Kultur etxean



Errimak bi oinetan

Dantza berriak bertsoei jarriak



Zuzendariak: **Aiert Beobide eta Unai Elizasu**

Konpainia: **Haatik**



20:00

ADINA: + 16

BITERI KULTUR ETXEA

Aretoaren edukiera
mugatua. Gonbidapenak
Biteri Kultur etxean

Garai bateko eta gaurko bertso eta doinuez osatutako emanaldi entretenigarri eta dibertigarri bat. Dantza eta Bertsoa gurutzatzen den lekuan hasi zen sormen honen bidaia. Konpainiak sormenezko lurralde berriak esploratzen jarraitzen du eta oraingoan bertsolartzaren soinua mugimendu garaikide bihurtzen du.

Sustrai Colina, Xalbador, Aitor Mendiluze, Lazkao Txiki, Uxue Alberdi, Odei Barroso eta bertsolari gehiagoren errimekin egingo dute dantza bost dantzarik. Igelaren bandak jarri die soinua bertsoei, eta Thierry Biscary, Maddalen Arzallus eta beste hainbatek jarri diote ahotsa. Bertsoa entzun, dantza ikusi eta emanaldia bizitu araziz.

Nola gorde errautsa kolkoan eztulik egin gabe

Poesia, musika eta irudi ikuskizuna

Hitzak: **Miren Agur Meabe** Musika: **Amorante**

Ikus-entzunezkoa: **Aitor Gametxo**

Zuzendaritza: **Eneritz Artetxe**



Miren Agur Meabek poema berriak plazaratuko ditu. Egilearen ohiko gaiak azalduko zaizkigu: oroitzapenen gaurkotzea, nortasunaren berrespena, indarkeriazko ekintzekiko ardura edota hitz poetikoaren balioa eta eginkizuna. Asmo horretan, besteak beste, zenbait emakume esanguratsu izango ditu solaskide[...]

Ikuskizun poetiko honen soinu bandari dagokionez, Amorante gonbidatu du. Ezohiko soinuen bila dabilena. Hori gutxi balitz, Aitor Gametxoren ikus-entzunezko sormenak ilustratuko du giroa. Eneritz Artetxe teatrogileak ikuskizuna harilkatzeko ardura hartu du. Hiru sortzaile handi Miren Agur Meaberen poesia indartsu bezain hunkiberari oihartzun egiteko.

2
URRIA

Antolatzailea



Hernaniko
Udala

euskara
ari du

Laguntzailea



@hernanikultura

@libhernani

liburutegia.hernani.eus

20:00

ADINA: + 16

BITERI KULTUR ETXEA

Aretoaren edukiera mugatua. Gonbidapenak Biteri Kultur etxean